

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetakoa, betetzea

Kontuan izanik beharrezkoa izango dela idazkari kontu-hartzailearen lanpostua betetzea, titularrak lanpostua ez betetzearen ondorioz.

Ikusirik gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

EBATZI DUT

Lehenengoa. 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduetakoren batean udal honetako idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua betetzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioaren izendapena proposatzeko prozedurari hasiera ematea, adierazitako lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazitako dokumentazioa erantsita.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioak izendatuko dira, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Egoera bakoitzaren barruan, lehentasuna ezarriko da Eusko Jaurlaritzak eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eta udalak izendapena hurrenkera horretan egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatu beharko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkez dezala, aipatutako artikuluetan adierazitakoaren arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkeztu ezean, jarraitu egingo da gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea Osoko Bilkurari, egiten duen hurrengo bileran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaritza. 3. Mota.

Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaitza.

Azpitaldea: A1.

Lanpostu-mailako osagarria: 26.

Osagarri espezifikoa: 32.813,16.

Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun-datarik gabe.

Duranan, 2025eko otsailaren 26an

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE

ERANSKINA

..... jauna/andrea NANaren titularra
(jakinarazpenetarako helbidea:..... herria,..... telefono-zenbakia:.....),
gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionarioa,.....
azpieskalakoa, eta, gaur egun,..... lanpostua betetzen
duena..... tokiko erakundean,..... (e) k egindako izendapenagatik,
..... jabetza-datarekin (edo honako egoeretako batean egonik: jarduneko zerbitzura
itzultzea – lankidetzat lanpostuak kentzea – izendapen askeko lanpostua uztea).

Azaltzen du

Jakin duela Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailatza lanpostua ez duela
betetzen titularrak, eta behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunaren edo metaketaren
bidez bete daitekeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak izanik,
indarrean dagoen legediaren arabera eta dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

Eskatzen du

Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailatza lanpostua behin-behineko
izendapenaren bidez, zerbitzu-eginkizunen bidez edo metaketaren bidez (ezabatu dagokiona)
betetzeko prozeduran parte hartzea.

Aurkezten ditu:

*NANaren fotokopia.

*Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

*Lanpostua metatuta eskatzen bada, erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela
jada izendapen metaturik betetzen.

..... n, 20..... koaren(e) an.

Sinadura:.....